2024ko maiatzean erregistratutako langabezia

2024ko maiatzean 3.131 langabetu gutxiago erregistratu dira LANBIDEko bulegoetan (-% 2,86); guztira 106.422 pertsona daude langabezia egoeran. Hileko saldoaren bilakaerak erakusten duenez, maiatza beheranzko joera duen hilabetea da erregistratutako langabezia-zifretan. Osasun krisiaren ondotik, aurtengo maiatzeko saldoa da daturik onena erakusten duena.



	mai.-10	mai.-11	mai.-12	mai.-13	mai.-14	mai.-15	mai.-16	mai.-17	mai.-18	mai.-19	mai.-20	mai.-21	mai.-22	mai.-23	mai.-24
Saldoa	-4.652	-4.808	-988	-371	-3.206	-5.934	-4.548	-2.772	-2.103	-1.771	3.072	-4.364	-2.202	-726	-3.131

Urte arteko saldoari dagokionez, positiboa izaten jarraitzen du, aurreko hilean ez bezala, non lehen aldiz zenbatu baitziren langabe gehiago urte arteko saldoan; aurtengo maiatzak azken aldiko joera berreskuratu du, urte arteko saldo negatiboa izan baitu (-853 pertsona,-% 0,80).

Gaur egun erregistratutako langabeen kopurua 2013ko maiatzeko maximo historikotik 72.919 pertsonatara dago, 2008an hasitako krisiaren unerik txarrena. Bestalde 35.467 langabe gehiago daude 2007ko ekainean baino, orduan erregistratu zen azken hamarkadetako minimo historikoa.

Beste maiatzetako balio maximo eta minimoei dagokienez, aurtengo maiatzean, 2013ko maiatzean baino 71.796 langabe gutxiago daude, eta 2007ko maiatzean baino 33.522 langabe gehiago.



• SEXUA

Sexuaren araberako datuak kontuan hartuta, bai gizonen eta bai emakumeen langabe kopuruak behera egin du hileko eta urteko bilakaeratan. Hala ere, portaera hobea dute emakumeen datuek gizonenak baino. Hileko bilakaeran, emakumeek saldo negatiboa izan dute, -1.870 pertsona gutxiagorekin (-% 2,96), eta gizonek ere -1.261 gutxiagorekin (-% 2,72). Urteko bilakaeran, langabezian dauden 11 gizon gutxiago (-% 0,02) eta 842 emakume gutxiago (-% 1,35) daude.

• ADINA

Datuek erakusten dutenez, langabeziak behera egin du adin-tarte guztietan, eta 30 eta 44 urte bitartekoek izan dute portaera onena, bai hileko datuetan (-1.281, -% 4,04), zein urteko saldoan (-% 960, -% 3,06).

45 urtetik gorakoek jaitsiera izan dute, bai hileko saldoan, bai urte artekoan. Hilabete honetako portaera oso antzekoa izan da gizonen eta emakumeen artean: emakumeen artean (-717, -% 2,05) murriztu da eta (-521, -% 2,05) gizonen artean.

Sexuaren eta adinaren arabera langabe kopuruan dauden aldeak aztertzen baditugu, ikusten da adin-talde txikienetan, 30 urtetik beherakoetan, genero-aldea nabarmen txikiagoa dela gainerako taldeetan baino. 30 urtetik beherako emakumeen artean, langabezia gizonena baino % 1,40 txikiagoa da, eta gainerako adin-taldeetan, berriz, emakume langabeen kopurua handiagoa da; % 60,11 handiagoa 30 eta 44 urte bitartekoen artean, eta % 37,20 handiagoa 44 urtetik gorakoen artean

• JARDUERA EKONOMIKOA

Datua sektoreka aztertuz, hilabete honetan ere sektore guztietan murriztu da langabezia, aurreko enplegurik gabekoetan izan ezik; talde hau da urte arteko saldo positiboa izan duen bakarra (+611). Gainerako sektoreei dagokienez, nabarmendu behar da portaera ona izan dutela, bai hileko zein urteko saldoetan. Hileko saldoan, zerbitzuen sektorean izan da jaitsierarik handiena (-2.826, -% 3,67). Urte arteko bilakaeran, Zerbitzuetan egondako beherakada nabarmentzen da modu absolutuan, eta Industria, berriz, balio erlatiboetan.

Hilabete honetan, enpleguarekin lotutako jardueretan, jan- eta edari-zerbitzuetan eta txikizkako merkataritzan izan dira jaitsierarik handienak langabeen kopuruan. Aitzitik, aurreko enplegurik gabeko pertsonek eta Ibilgailu motordunen fabrikazioak igoerak izan dituzte hileko langabe kopuruan, eta, lehenengo kasuan, baita urteko saldoan ere.

Iazko egoerarekin alderatuta, enplegurik ez zuten pertsonak eta Etxeetan etxeko langileen enplegatzaile gisa zeudenak, aurreko hileko rankingeko berberak izateagatik nabarmentzen dira, azken urtean langabeziak gora egin baitu bi hauetan. Gauza bera gertatzen da urte arteko portaera onena izan duten jarduerekin: finantza-zerbitzuak, Administrazio publikoa, Hezkuntza eta beste jarduera zientifiko batzuk, bi hilabetez jarraian errepikatu direnak rankingean.

Xehetasun-maila handiagoz, azken hilabetean langabeziak behera gehien egin duen jarduerak hauek izan dira:

Enpleguarekin lotutako jarduerak	-643
56 Janari- eta edari-zerbitzuak	-390
47 Txikizkako merkataritza	-364
87 Egoitza-establezimenduetako laguntza	-257

81 Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintzako jarduerak	-179
86 Osasun-jarduerak	-134
84 Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza	-118
43 Eraikuntza espezializatuko jarduerak	-107
46 Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak	-105
Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:	
Aurretik lanik ez duten pertsonak	+65
29 Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa	+60

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan epe-luzeko langabezia 259 pertsonatan murriztu da. Iraupen laburrekoa 2.872 pertsonatan jaitsi da. Iraupen luzeko langabe kopurua guztizkoaren % 50,5ekoa da. Balio erlatiboetan, urteko erreferentzian, gorakada gertatu da iraupen luzeko langabeen kolektiboan, 207 pertsonatan hazi baita (% 0,4ko hazkundea); iraupen laburreko langabeen artean, berriz, ,% 1,97tan murriztu da (-1.060 langabe gutxiago).

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean, emakumeen artean, eta Bizkaian bizi direnen artean. Azken hilabeteko bilakaera erlatibo onena gizonezkoei, 44 urtetik gorakoei, gizonezkoei eta Gipuzkoan bizi diren pertsonei dagokie. Iazkoarekin alderatuta, nabarmentzekoa da iraupen luzeko langabeziaren hazkundea 30 urtetik beherakoen artean (+333 pertsona, % 7ko igoera); langabezia hazi den adin talde bakarra da. Gizonen artean (+256 gizon, +% 1,2ko igoera) eta Gipuzkoan bizi direnen artean (+237 pertsona, % 1,8ko hazkundea).

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, jaitsi egin da langabeen kopurua lurralde guztietan; Araba izan da hileko saldoaren joerarik onena izan duena balio erlatiboetan (-% 3,86). Ondoren, Gipuzkoa (-% 3,46) eta Bizkaia daude (-% 2,27).

Urte arteko saldoan, Araba nabarmentzen da portaera onagatik, 910 pertsonatan murriztu baita langabezia (-%4,79). Bizkaian 20 langabe gutxiago daude (-%0,03); aitzitik, Gipuzkoa da urteko langabe saldoa igo den lurralde bakarra (+77 pertsona, %0,27ko igoera).

EAEko hiru hiriburuetan hileko langabezia erregistratua murriztu egin da. Vitoria-Gasteizen hileko (-618, -% 4,21) eta urte arteko (-283, -% 1,97) langabezia beherakadak dira esanguratsuenak. Ondoren, Bilbon 450 langabe eta Donostian 325 langabe gutxiago daude hil artekoan. Urte arteko saldoan, ordea, Bilbo da langabezia igo den hiriburu bakarra, +87ko pertsonako saldoarekin.

Maiatzean erregistratutako langabezia-tasa handienak izan dituzten udalerriak Sestao (% 15,57), Amurrio (% 14,47), Balmaseda (% 14,23), Ortuella (% 14,1) eta Oion (% 14,09) izan dira.

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024 maiatzean, 34.522 langabek (aurreko hilean baino 978 gutxiago) langabezia-prestazioren bat jaso dute. Gaur egun, langabeen % 32,4k langabezia-prestazioren bat jasotzeko eskubidea du. Langabeen % 17,8k (18.928 pertsona) kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute. % 13,47k

(14.340) langabezia subsidioren bat jasotzen dute. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du babes handiena (% 35,6ko tasa), Bizkaian % 31,7koa da eta Araban % 29,9koa.

Apirilaren aldean, langabeziagatiko estaldura-tasa 0,03 igo da, eta iazko maiatzaren aldean 0,31 puntu murriztu da.

• JATORRIA

Langabe guztietatik 20.124 (% 18,9) atzerritarrak dira. Apirilaren aldean, langabeziak % 2,49 egin du behera atzerritar jatorriko pertsonen artean. Urte arteko bilakaeran atzerritar jatorriko langabeen kopuruak % 7,28 egin du gora, aldiz, espainiar nazionalitatea dutenen artean % 2,51 egin du behera.

Atzerriko langabeen % 32,9 Afrika iparraldetik datoz, % 27 Latinoamerikatik, % 15,4 Europako Esparru Ekonomikotik, % 11,5 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta % 6,3 Asiatik.

• IKASKETA MAILA

60.120 langabek, guztien % 56,5ek, asko jota derrigorrezko ikasketak dituzte. Azken hilabetean, oinarrizko prestakuntza maila hau duten 1.426 pertsona gutxiago daude langabezian, hau da, % 2,32 murriztu da. Azken urtean, langabeziaren beherakada % 0,62koa izan da derrigorrezko ikasketak dituztenen artean (-373 pertsona).

Batxilergoa duten langabetuak langabe guztien % 7,8 dira. Azken hilabetean -% 1,70 jaitsi dira eta azken urtean, % 0,34ko gorakada izan dute.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 26.369 dira, guztizkoaren % 24,8. Hil honetan -1.089 pertsonako saldo negatiboa izan da eta iazko maiatzarekin alderatuta, % 0,81 hazi da.

Azkenik, % 11k (11.684 pertsona) unibertsitate-ikasketak ditu.; % 3,89ko murrizketa eta 473 pertsona gutxiago hil honetan. Iazko datuekin alderatuta, berriz, kolektibo honek eduki ditu datu onenak langabezia % 5,80tan jaitsi baita.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabezia % 2,2 jaitsi da, 58.650 pertsona gutxiago, eta erregistratutako 2.607.850 langabetu daude guztira; EAEn, berriz, erregistratutako langabezia % 2,86 murriztu da. Nafarroan % 1,53 jaitsi da, Errioxan % 2,86, Kantabrian % 2,81 eta Gaztela eta Leonen % 3,57. Katalunian % 1,85 jaitsi da, eta Madrilen % 1,87 jaitsi da.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ko maiatzean

	Mai-2024	Api-2024	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	45.117	46.378	-1.261	-2,72
EMAKUMEZKOAK	61.305	63.175	-1.870	-2,96
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	16.849	17.461	-612	-3,50
GIZONEZKOAK	8.484	8.687	-203	-2,34
EMAKUMEZKOAK	8.365	8.774	-409	-4,66
25-44 URTE:				
GUZTIRA	30.430	31.711	-1.281	-4,04
GIZONEZKOAK	11.699	12.236	-537	-4,39
EMAKUMEZKOAK	18.731	19.475	-744	-3,82

2024ko maiatzean erregistratutako langabezia

45 URTEZ GORAKOAK:	:			
GUZTIRA	59.143	60.381	-1.238	-2,05
GIZONEZKOAK	24.934	25.455	-521	-2,05
EMAKUMEZKOAK	34.209	34.926	-717	-2,05
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	1.941	2.021	-80	-3,96
INDUSTRIA	10.145	10.299	-154	-1,50
ERAIKUNTZA	6.031	6.167	-136	-2,21
ZERBITZUAK	74.110	76.936	-2.826	-3,67
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.195	14.130	65	0,46
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.081	18.806	-725	-3,86
BIZKAIA	60.227	61.624	-1.397	-2,27
GIPUZKOA	28.114	29.123	-1.009	-3,46
EAE	**106.422**	**111.471**	**-1.918**	**-1,72**

E S K U A L D E K O B I L A K A E R A

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bajo Bidasoa	3.682	9,7%	-135	-3,54	3	0,08
Oarsoaldea	3.244	8,7%	-99	-2,96	39	1,22
Donostia-S.Seb.	6.524	7,3%	-325	-4,75	-37	-0,56
Donost.Oeste	2.790	7,2%	-76	-2,65	-61	-2,14
Tolosaldea	1.802	7,4%	-64	-3,43	-4	-0,22
Urola Erdia	1.119	7,1%	-33	-2,86	-6	-0,53
Goiherri	1.619	7,5%	-118	-6,79	101	6,65
Alto Deba	2.239	7,3%	-29	-1,28	-27	-1,19
Bajo Deba	2.637	10,0%	-48	-1,79	41	1,58
Urola Garaia	1.093	8,9%	-25	-2,24	66	6,43
Urola Kosta	1.365	5,8%	-57	-4,01	-38	-2,71
GIPUZKOA	**28.114**	**7,9%**	**-1.009**	**-3,46**	**77**	**0,27**
Vitoria-Gasteiz	14.073	10,9%	-618	-4,21	-283	-1,97
Valle de Aiala	2.064	10,9%	-50	-2,37	-28	-1,34
Rioja Alavesa	551	9,6%	-34	-5,81	10	1,85
LLanada Alavesa	663	8,8%	-9	-1,34	1	0,15
Estrib. Gorbea	272	5,4%	-15	-5,23	-23	-7,80
Valles Alaveses	395	7,6%	-2	-0,50	14	3,67
Montaña Alavesa	107	6,5%	2	1,90	7	7,00
ARABA	**18.081**	**10,6%**	**-725**	**-3,86**	**-910**	**-4,79**
Gobela	4.173	8,1%	-122	-2,84	-15	-0,36
Txorierri	1.970	8,4%	-71	-3,48	3	0,15
Uribealdea	2.737	7,8%	-38	-1,37	-17	-0,62
Duranguesado	3.038	8,0%	-32	-1,04	-39	-1,27
Busturialdea	1.916	8,6%	-87	-4,34	-76	-3,82
Lea-Artibai	797	6,6%	-14	-1,73	-60	-7,00
Encartaciones	1.876	11,8%	-39	-2,04	22	1,19
Arratia-Zornotza	1.361	7,6%	-48	-3,41	-74	-5,16
Medio Nervion	1.248	9,4%	-24	-1,89	26	2,13
Bilbao	21.062	12,4%	-450	-2,09	87	0,41
Margen Izquierda	15.875	12,5%	-387	-2,38	182	1,16
Ibaizabal	4.129	10,0%	-84	-1,99	-48	-1,15
BIZKAIA	**60.227**	**10,6%**	**-1.397**	**-2,27**	**-20**	**-0,03**
CAPV	**106.422**	**9,7%**	**-3.131**	**-2,86**	**-853**	**-0,80**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.